



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

José Iparraguirre Altamira
María Cristina Apezteguia Saldias
Teresa Miqueo Gamio
Francisco Javier Alchu Iparraguirre
Eusebio Elizalde Mariezcurrena
Bautista Berregui Berruet

2010eko otsailaren 16an, goizeko 10etan, Iturengo Herriko Etxean, legez egindako deialdiaren ondorioz, Ohiko Biltzarrean elkartzen dira ondoan aipatzen diren zinegotziak. Alkatea den, José M^a Gorosterrazu Elizalderen lehendakaritzapean, eta idazkaria den, Miguel José Belarra Tellechearen aitzinean, Gai Zerrendan sarturik dauden gai hauek aztertzen dira:

1. AURREKO BILKUREKO AKTAK IRAKURRI ETA ONETSI.

Idazkariak azkeneko 2 bilkureko aktak irakurri ditu; ondoren, ahobatez onetsi eta izenpetu dituzte.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. J.E.E.k lizentzia eskatu du Igerabidea 22, 3. ezkerreko etxeko leihoak aldatzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea E. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 6.853,00 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 205,59 euro.

2. F.G.A.k lizentzia eskatu du 7,50 metro karratuko egurrezko txabola jartzeko 3. poligonoko 112. partzelan, material zaharrekin egina. Eztabaidatu ondoren, ez dela eraikuntza iraunkorra izango kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute baimena ematea G. Jn.ari, txabola jartzeko 3. poligonoko 112. partzelan. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du; zerga hori likidatu ahal izateko, aurrekontu idatzia aurkeztu beharko du Udaletxean.

Cristina Apezteguiak ez du erabaki honetan parte hartu.

3. Idazkariak irakurri du J.C.E.A.ek aurkeztu duen eskera, Pioinea etxeko ganbaran "arlita"ko zolarria eraikitzeke eta 37,50 metro karratuko garajea eraikitzeke atzealdeko baratzen. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute:

1. Pioinea etxeko ganbaran zolarria eraikitzeke lizentzia ematea E. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 2.025,00 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 60,75 euro.

2. Sustatzaileari jakinaraztea, garajea eraikitzeke obrak egiteko lizentzia lortu ahal izateko, teknikari batek egindako proiektua aurkeztu beharko duela Udaletxean, behar bezala bisatua. (Hirigintzako Prozedurari Buruzko Ordenantzaren 15. artikulua).

Puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan, baldintza hauek bete behar dira:

- Planeamendurako Arau Subsidiarioak jartzen dutena bete.
- Hirugarrengoen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea; espediente zigortzailea irekiko zaie, lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

3. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2. POLIGONOKO 99. PARTZELA.

J.R.B.M.k aurkeztu zituen agiriak eta planoak, Iturengo 2. poligonoko 99. partzela hiri-lurrean sartzeko, unitate berri bat sortuz. Planeamenduko Arau Subsidiarioetako antolamenduko egiturazko determinazioen aldaketa onetsi zuen Udalak hasiera batez, 2009ko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran. Akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2009ko 156. zenbakiko NAO) eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan argitaratu zen eta hilabete bateko epean jendaurrean egon ondoren ez zuen inork alegaziorik aurkeztu.

35/2002 Foru Legearen 70.4 artikulua jartzen duen txostena eman du Nafarroako Gobernuko Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko Departamentuak.

Aipatutakoak kontutan hartuz eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 79.2, 70 eta 71. artikuluei jarraituz, aho-batez, erabaki dute:

1. Behin behineko onestea J.R.B.M.k sustaturiko Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketa, 2. poligonoko 99. partzela hiri-lurrean sartzeko, unitate berri bat sortuz.

2. Espedientea bidaltzea Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko Departamentura, behin betiko onespena emateko eskatuz.

3. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko foru legearen 52. artikulua jartzen ditu, babes publikoko etxebizitzak aurreikusteari buruzko determinazioak. Artikulu horrek dio, 3.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan, behar bezala justifikatzen badute ez dela komeni aurreikuspen horiek gauzatzea, betiere halakorik ezartzen duen lurralde-plangintzako tresnaren baten determinazio loteslerik ez bada, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko kontseilariaren baimena lortzen ahalko dutela, beharkizun hori murriztu edo kentzeko. Hori eskatuko du Iturengo Udalak.

4. HIRIGINTZA HITZARMENA UE-1.

Iturengo Udalak, 2009ko abuztuaren 20an egin osoko bilkuran erabaki zuen, hasiera batez onestea kudeaketako hirigintza hitzarmena, U.E. 1 unitatearen esparruan lagatu beharreko %10 eskudirutan ordaintzeko. Espedientea jendaurrean egon zen, 2009ko urriaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (126. zenbakia).

Jendaurrean egon den epean zenbait alegazio aurkeztu dira eta haiei buruzko txostena eman du erredaktore-taldeak.

ZUZENBIDEZKO FUNDAMENTU BAKARRA.- 35/2002 Foru Legeko 25.4 artikulua xedatzen du Udalari dagokiola hirigintza aprobetxamenduaren lagapenaren legezko betebeharra ordezko eskudirutan eginiko ordainketa baten bidez betetzea erabakitzen duten hitzarmenak onestea, gutxienez hogeitun egun jendaurrean eduki ondoren.

Aipatu den bezala, hitzarmena hasiera batez onetsi zuen Udalak eta jendaurrean jarri zuen, eta epe horretan aurkeztu diren alegazioei buruzko txostena eman du erredaktore-taldeak.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Beraz, alegazioak onetsi edo ez onartu ondoren, behin-betiko onespenerari buruzko erabakia hartu behar da.

35/2002 Foru Legeko 25. artikuluari jarraituz, Iturengo Udalbatzak ahobatez ERABAKI DU:

1. Bere gain hartzea osorik erredaktore-taldeak eman duen txosten teknikoa, kudeaketako hirigintza hitzarmenari aurkeztutako alegazioak ukatuz.

2. U.E. 1 unitatearen esparruan lagatu beharreko % 10 eskudirutan ordaintzeko hirigintza hitzarmenari behin-betiko onespenera ematea.

3. Erabaki hau jakinaraztea alegazioak aurkeztu dituzten guztiei, bakoitzak aurkeztutako alegazioari buruzko txostenarekin batera.

4. Ahalmena ematea alkateari, José M^a Gorosterrazu Elizalde, Lindutx Baztan SLko legezko ordezkariarekin hitzarmena sinatzeko

5. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onspenera hau.

5. BORONDATEZKO BIRZATIKETA UE-1.

Iturengo Udalak, 2009ko abuztuaren 20an egun osoko bilkuran erabaki zuen, hasiera batez onestea U.E. 1 unitateko borondatezko birzatiketa proiektua. Espedientea jendaurrean egon zen, 2009ko urriaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (126. zenbakia).

Jendaurrean egon den epean zenbait alegazio aurkeztu dira eta haiei buruzko txostena eman du erredaktore-taldeak.

ZUZENBIDEZKO FUNDAMENTU BAKARRA.- 35/2002 Foru Legeko 151. artikulua xedatzen du, birzatiketa proiektuaren onspenerako prozedura 76. artikuluan xehetasun azterlanentzat ezarritakoa izanen dela, hau da, hasiera batez onetsi, hoguei egun jendaurrean eduki eta behin-betiko onartu, aurkeztutako alegazioak –eman baldin badira– erabaki ondoren.

Aipatu den bezala, birzatiketa proiektua hasiera batez onetsi zuen Udalak eta jendaurrean jarri zuen, eta epe horretan aurkeztu diren alegazioei buruzko txostena eman du erredaktore-taldeak. Beraz, alegazioak onetsi edo ez onartu ondoren, behin-betiko onspenerari buruzko erabakia hartu behar da.

35/2002 Foru Legeko 151. eta 76. artikuluari jarraituz, Iturengo Udalbatzak ahobatez ERABAKI DU:

1. Bere gain hartzea osorik erredaktore-taldeak eman duen txosten teknikoa, U.E. 1 unitateko borondatezko birzatiketa proiektuari aurkeztutako alegazioak ukatuz.

2. U.E. 1 unitateko borondatezko birzatiketa proiektuari behin-betiko onspenera ematea.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

3. Erabaki hau jakinaraztea alegazioak aurkeztu dituzten guztiei, bakoitzak aurkeztutako alegazioari buruzko txostenarekin batera.

4. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onespén hau.

6. URBANIZAZIO PROIEKTOA UE-1.

Iturengo Udalak, 2009ko irailaren 30ean egin osoko bilkuran erabaki zuen hasiera batez onestea U.E. 1 unitateko urbanizazio proiektua. Espedientea jendaurrean egon zen, 2009ko urriaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (132. zenbakia).

Jendaurrean egon den epean zenbait alegazio aurkeztu dira eta haiei buruzko txostena eman du erredaktore-taldeak.

ZUZENBIDEZKO FUNDAMENTU BAKARRA.- 35/2002 Foru Legeko 134. artikulua xedatzen du, urbanizazio proiektuaren onespenerako prozedura 76. artikuluan xehetasun azterlanentzat ezarritakoa izanen dela, hau da, hasiera batez onetsi, hogeitau egun jendaurrean eduki eta behin-betiko onartu, aurkeztutako alegazioak –eman baldin badira- erabaki ondoren.

Aipatu den bezala, urbanizazio proiektua hasiera batez onetsi zuen Udalak eta jendaurrean jarri zuen, eta epe horretan aurkeztu diren alegazioei buruzko txostena eman du erredaktore-taldeak. Beraz, alegazioak onetsi edo ez onartu ondoren, behin-betiko onespénari buruzko erabakia hartu behar da.

35/2002 Foru Legeko 134. eta 76. artikuluari jarraituz, Iturengo Udaltzak ahobatez ERABAKI DU:

1. Bere gain hartzea osorik erredaktore-taldeak eman duen txosten teknikoa, U.E. 1 unitateko urbanizazio proiektuari aurkeztutako alegazioak ukatuz.

2. U.E. 1 unitateko urbanizazio proiektuari behin-betiko onespén ematea.

3. Erabaki hau jakinaraztea alegazioak aurkeztu dituzten guztiei, bakoitzak aurkeztutako alegazioari buruzko txostenarekin batera.

4. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onespén hau.

7. 2009-2012 EPERAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.3 e) artikulua xedatzen duena kontutan hartuz, kontratuaren balioa 7.946,64 eurokoa (gehi BEZa) dela ikusirik -15.000 euro baino txikiagoa- ahobatez erabaki dute: “HODI NAGUSIA BERRITZEA BILTONTZITIK SARERAINO” obrako proiektua eta zuzendaritza teknikoa esleitzea Sertecna PJS Proyectos, Estudios y Servicios Técnicos de Navarra, SARI.

8. 2009-2010EKO BASO-LANAK.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Espedientean dauden agiriak eta gonbidatuak izan ziren 3 enprekin burutu diren negoziazioen emaitzak ikusirik eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute:

1. "2009-2010eko KANPAINAN ITURENGO KOMUNALEAN BURUTU BEHAR DIREN BASO LANAK" esleitzea EXCAVACIONES JOARBE, SL enpresari, B 31 711518 IFK, berrogeita hamaika mila zazpi ehun eta hirurogeita hamabi euro eta hirurogeita hiru zentimotan (51.772,63 €) gehi BEZa. Lanak egiteko orea 2 hilabetekoa izango da.

2. Kontratoa sinatzeko ahalmena ematea alkateari, José M^a Gorosterrazu Elizalde.

3. M.M.O. izendatzea obrako zuzendari teknikoa.

4. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari eta obrako zuzendariari.

9. OIHAN-APROBETXAMENDUKO ESKAERA.

Ahobatez erabaki dute Nafarroako Gobernuari bidaltzea oihan-aprobetxamenduko eskaera hau, lurzatiaren jabetza aurretik juzgatu gabe, beharrezkoa den baimena lortzeko: O.E.I.A.k, "Ibarla" parajea; komunala bezala agertzen da katastroan, 2. poligonoko 152. partzelan.

10. 2008KO KONTUAK.

2009ko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran aldeko txostena eman zitzaiela ikusirik, eta espedientea jendaurrean egon den epean ez dela erreklamaziorik egin kontuan hartuz, ahobatez onartu dituzte 2008ko kontuak.

11. ONDAREEN DESAFEKTAZIOA.

1. 2009ko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran erabaki zen, hasiera batean onestea Iturengo Elektra, S.L. udal enpresak udalerrian argi indarraren zerbitzua emateko beharrezko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea (banatzeko sare elektrikoak -banabideak, zutoinak, etab.- transformazio zentroak, transformadoreak eta ekipo teknikoak, neurri ekipoak, lanabesak, etab.) ondareko ondasunak izendatzeko. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia (2010eko urtarrilaren 13ko NAO), espedientea hilabete bateko epean jendaurrean egon da eta ez du inork alegaziorik aurkeztu. Aipatutakoa ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 103. artikulua xedatzen duenari jarraituz, ahobatez (arazko quoruma) erabaki dute ondasunen kalifikazio juridikoaren aldaketa behin betiko onestea.

2. Bestalde, espedientean dauden agiriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 103. artikulua xedatzen duenari jarraituz, ahobatez (arazko quoruma) erabaki dute:

1. Hasiera batean onestea Tailerrea etxearen atzealdean dagoen herri lurzoruko 8 metro karratuko zatiari kalifikazio juridikoa aldatzea, ondareko ondasuna izendatzeko.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Kalifikazio juridikoaren aldaketa egokia eta legezkoa da, 3 poligonoko 68. partzelarekin trukatzeko, Aurtizko Auzoko sarrera berria lursail hori hartuz eraiki bai zen.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko. Inork alegaziorik aurkezten ez badu, behin betikoz onetsizat hartuko da ondasunen kalifikazio juridikoaren aldaketa.

12. BAKE EPAILEA.

Ikusirik bake-epailearen kargua hutsik geldituko dela laister, kargua betetzeko prozedurari hasiera ematea erabaki dute ahobatez.

13. ALKATE JN.AREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauek berretsi dituzte: 2009ko abenduaren 23koa, non, 488/09 kontentzioso-administratibo errekurtsioan agertzea erabaki zuen; 2009ko abenduaren 30ekoa mediku-kontsulta berriko obra ordaintzeko dirutzaintza mailegua hartzea erabaki zuena; 2010eko otsailaren 5ekoa, non, lizentzia eman zitzaion J.M.E.G.ri, 3. poligonoko 39. partzelan dagoen baratzako pareta berregiteko.

14. ZENBAIT ESKAERA.

1. J.I.O.A.k baimena eskatu du, erlategia jartzeko “Jurdaneko borda” parajea (5. poligonoko 14 E partzela). Gaia eztabaidatu ondoren, erlategia jartzeko baimena ematea erabaki dute ahobatez, 209/2002 Errege Dekretua betetzeko baldintzapean.

Cristina Apezteguiak ez du erabaki honetan parte hartu.

2. Eskatu den zain-irauliaren balorazioa irakurri du idazkariak, basozainak egindakoa. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute zain-iraulia saltzea eskatzaileari, hau da, P.M.E.ri, 1,70 metro kubiko egiten duen haritza, 10 eurotan.

3. J.A.A.ek aurkeztu duen idazkia irakurri du idazkariak; bertan baimena eskatu du herriko bestetan “tiro-pichón” barraka jartzeko. Eztabaidatu ondoren, barraka jartzeko baimena eman diote A. Jn.ari, 120 euro ordaintzeko baldintzapean.

4. A.U.E.k eskatutako baimena ematea erabaki dute ahobatez, zine emanaldia emateko Udaletxeko ganbaran otsailaren 19an.

5. L.B.G.k baimena eskatu du kartak uzteko buzoia jartzeko Aurtizko Auzoan, Mendaurreko pistaren hasieran. Eztabaidatu ondoren, buzoia jartzeko baimena ematea erabaki dute ahobatez, bidearen bazterra oztopatu gabe jartzeko baldintzapean.

6. B.A.B.k eskatu zuen, herrikoa den 2. poligoko 214. partzelatik sarrera bat irekitzeko Landa aldera. 2009ko abuztuaren 20an egin osoko bilkuran erabaki zen, Nafarroako Gobernuko Bideen Sailari txostena eskatzea, errepideari sarrera berri hau irekitzeko aukerari buruz. Txosten hau irakurri du idazkariak eta eztabaidatu ondoren, A. And.ari agiri hauek eskatzea erabaki dute



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

ahobatez: azterlan bat bidearen kokapena ongi zehaztuz, ukitzen diren lursail pribatuen zerrendarekin eta jabeen baimen idatziekin.

7. Promociones Lindutx Baztan, SLek herriko lursail batean kartel bat jartzeko baimena eskatu du. Eztabaidatu ondoren, 2. poligonoko 202. partzela herri jabetzako ondasuna dela ikusirik, kartela jartzeko toki aproposa dela kontsideratuz eta eskatu den erabilpen pribatibo honek ez duela mugatzen lursail horren ganako besteen erabilera kontutan hartuz, Nafarroako Toki Administrazioako 6/1990 Foru Legearen 122. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ahobatez erabaki dute:

- Promociones Lindutx Baztan, SLri lizentzia ematea kartel bat jartzeko 2. poligonoko 202. partzelan, zabor-edukiontzien gibelean, oztoporik egiten ez duen tokian.

- Sustatzaileari ohartaraztea Udalak dituen eskumemen barruan eman zaiola baimena. Beharrezkoak diren beste baimen guztiak berak tratimatu beharko ditu (Nafarroako Gobernu, Ur-Konfederazioa...).

8. Paz de Ziganda Ikastolari 250,00 euroko diru-laguntza ematea erabaki dute ahobatez, Nafarroa Oinez 2010 antolatzeke.

9. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak bidali duen idazkia irakurri du idazkariak, Iturengo Eskolari "PULUNPA I. P." izena jartzeko aldeko txostena eskatuz. Izen aldaketari aldeko txostena ematea erabaki dute ahobatez.

15. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Eskola-kontseiluko bileraren berri eman du alkate Jn.ak.

2. Ondoren, ezagutuzat eman dituzte agiri hauek: Nafarroako Gobernuko erabakiak, 2010eko otsailaren 1ekoak, Azpiegituren Lurralde Plangintzari buruz; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako ebazpena, 2009ko azaroaren 27koa, Hormaiako bordako ur-zikinak botatzeko baimena eman diona I.R.M.i; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako ebazpena, 2009ko azaroaren 27koa, Apeztegiko Errekatik ura aprobetxatzeko baimena eman diona J.L.E.G.ri; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako ebazpena, 2009ko azaroaren 30koa, mediku-kontsultategi berria eraikitzeke obrak egiteke baimena eman diona Iturengo Udalari; Turismoko zuzendari orokorraren 732/2009 ebazpena, Alberrokoborda landa etxea Turismoko Erregistroan inskribatzeke buruzkoa; Abeltzaintzako Zerbitzuak bidalitako idazkia, T.M.A.ren txerrien ustiatzea inskribatzeke buruzkoa; Herri-Osasuneko Institutuak bidali dituen ur-analisien emaitzak.

16. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Eta bertzerik ezean, eguerdiko 12 t'erdia direnean, alkate Jn.ak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, id